

Danbor hotsak euripean

TOLOSA ▶ Haur Danborrada egin zuten atzo Laskorain, Samaniego eta Hirukideko ikasleek 31. urtez, Aiz-Orratzek antolatuta

ZALDUNITA ▶ Asteetan zehar tolosarrek prestatu dituzten konpartsak, karrozak eta mozorroak kalera aterako dituzte gaur ▶ 4-5



Txantxoak. Euriak danborrada busti zuen, baina ez zuen festa zapuzterik izan; umeez gogor jo zioten danborrari. NEREA URBIZU



Mozorroa janzteko zai,
musika alaia nonahi,
festak kaleak hartu ditzala,
gure gorputzak ere bai.

ONDO PASA IÑAUTERIAK!





Txarangen eta zezenen giroa 1927an

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Tolosako Inauteriak aspaldiko kontua dira gurean. Ez pentsa parranda atzo asmatua denik. Ohiturak aldatu egiten dira baina batzuetan ere urtetik urtera mantentzen dira batzuk. Hori da, hain zuzen ere, txarangen

kasua. 1927an dagoeneko garaiko tolosarrek kalejiran jeisten ziren zezen-plazaraino txarangaren atzetik. Gurdiaren gainean daudenak Fortunato Lope eta Pepe Hilario dira. Nork dio orduan ondo pasatzen ez zekitenik? HITZA

PASADIZOA ▶

Diana galtzean. Diana galtzeko zorian egon zen 1946an. Musika Bandako zuzendaria Felipe Bernad tuterarra zen eta zuen batere gogorik. Gainera oso jende gutxi joaten Dianan saltatzera. Paquito Alustiza zinegotziak eman zuen Diana egiteko baimena, nahiz eta suspendituta egon. Javier Bello Portu eta beste batzuk musikariren bila etxex etxe joan ziren eta Diana egin zen. Handik urte gutxira indartzen joan zen gaur egun ezagutzen dugun bezala izatera iritsi arte.



lazio Dianaren une bat. i. t.

ANGEL NAVAS ▶ INAUTERIZALEA

«Urtean zehar daramagun kareta hiru egunetan kentzen dugu»

Nerea Urbizu. 46 urte, eta 13-14 urteak betez geroztik bere kasa edo, gurasoek prestatzen ez zituzten gauzak janzen daramatza Gaztelun bizi den tolosarrak. Aurten, dirudienez, Farruitorekin lotutako parodia barregarri bat egingo dute.

Zer dira zuretzat Tolosako Inauteriak?

Urtean zehar daramagun kareta hiru egunetan zehar kentzea. Orduan, Inauterietan gara gu geu, benetako pertsona. Txikitatik, gurasoengatik dandorradan hasi ginen, eta 13-14 urterekin nire kasa hasi nintzen, gutxi gorabehera nik nahi nuena janzen.

Zer aukeratzeko duzu mozerro gisa?

Gizartean dauden gauzak, modan daudenak gehienbat. Gertatzen diren gauzak hartzen ditugu kontuan. Aurten ziurrenik Isabel Pantoja eta Julian Muñoz edo, aterako dira. Inguruan ikusten ditugun gauzak kritikatzen ditugu, baina beti umo-

re puntuarekin. Behin 23-F ere irudikatu genuen, baina beste noizbait pailazoz ere jantzi izan naiz.

Orduan beti dago salatzeko zer edo zer?

Ez du zertan. Oso garrantzitsua iruditzen zait ere hitz egitearena: esaten dena landu egin behar da ere. Barruan duzun guztia atera egin behar da. Hori da adibidez Donostiako inauterietz bereizten gaituena.

Zein da gogoan duzun mozerro hori?

Gogoan dut ring bat egin genuenekoa: emakumeen bainujantzia genuen jarrira eta lokatzetan borrokan aritu ginen. Hotz ikaragarria egiten zuen, lokatza benetakoa zen... Jendea lohiarekin ere zipiritindu genituen... Ondo egon zen.

Anekdotaren bat izango duzu.

Anekdotak, 100.000 egon daitezke! Behin Inestrillasen parodia egin genuen: aurreko asteazkenean kartelak jarri ge-



HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Mozorro bat? Bat esatekotan, ring-ean atera ginenekoa.

Bestondokorik? Beno... Urteak gora joan ahala neurria hartuz goaz...

Edateko? Garagardoa, edo sagardoa.

Egun bat? Asteartea, herrikoak bakarrik gaudenekoa. **Gaua ala eguna?** Eguna, noski! Gauek beste edozein asteburukoak dirudite.

Ezin da falta... Umorea.

nituen, Inestrillas zetorrela esanez, eta hurrengo egunerako kartelak desagertu egin ziren. Jendeak kartelak zioena benetan sinetsi egin zuen! Gero, mozerroa ikustean ere jende askok ez zuen parodia ulertu.

Zer esan, larunbatetan mozerrotzen direnei?

Beno, ezer ez. Ondo iruditzen zait. Egunero mozerrotzea izango litzateke onena: gertatzen dena da hiru egun bakarrik daudela maskara kentzeko. Gainera, larunbatetan ez naiz ateratzen. ◀

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



GIZARTEA ▶

San Frantzisko ibiltokia azoka berezi

Urtero, hainbat postu ikusi ahal izaten dira kalean; jaki, arropa, pitxi nahiz osagarriak salduaz egoten dira bertan

ESTI EZEIZA

Pitxiak, gozokiak, jostailuak, gerrikoak... San Frantzisko ibiltokia azoka handi bilakatzen da egun hauetan. Urtero, atzeritrik nahiz Euskal herritik datozen saltzaileak, bere postua

Tolosako kale nagusian kokatzen dute, handik igarotzen diren herritarren harreta bereganatuz. Festarik festa ibiltzen dira gauzak saltzen, baina Inauterietan Tolosa aukeratzeko dute lanerako toki bezala. Bizibide berezia, xarmanta,

baina aldi berean, gogorra aukeratu dute kale saltzaile hauek. Eguraldi ona nahiz txarra egin, ez dute hutsik egiten, eta iada, Tolosako Inauterietan zati bilakatu dira. Kalean ikusi eta bizi daitekeen paisaiaren osagarri dira.



Gozokiak. Kolore bizi eta forma guztietako gozokiak. E. EZEIZA

AZOKA ▶

Aurtengo lehen zizak erosi ahal izan dira

Inauterietako giro alai eta berezia nabaritu zen atzo egindako azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azokan Inauterietako giroa somatzen zen zeharo. Kalean jendea nahiz eta moztortuta ez ibili, jai giroan zebilen, eta azokara pasa zen giro hau. Postuetan jende ugari, eta kanpoko bisitariak ere bai.

Zerrendan nobedade garrantzitsu bat ikusi genuen. Aurtengo lehenengo zizak aurkeztu zituzten postu batean. Tolosako sukaldari batzuek erosi zituzten 150 kiloko zeudela. Dirudienek datozen asteetan ere salgai izando dira.

Barazki zerrenda ez zen aldatu, eta joan den astean eskeini zen produktu zerrenda mantendu egin zen.

ATZOKO AZOKA ▶

Gaia	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Erromeroa	4,00	6,00
Txinarr kralbelina	2,50	-

Bertako produktuak		
Zizak	15	-
Urrak	2,00	3,00
Kalabaza	1,50	3,00
Lekak	2,50	3,50
Erremolabxa	1,50	2,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Azalorea	1,00	-
Tipula	1,75	2,00
Erremolabxa	1,60	-
Ahuntz gazta	3,00	-
Ogia	2,55	-
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60



Taloak. Goierriko taloak eta Ataungo taloak izenpean, urtero bi postu egoten dira San Frantzisko etorbidean. E. EZEIZA



Arropa. Prakak, nikiak, poltsoak, Inauterietako osagarriak etabar erosi daitezke kaleko postu hauetan. E. EZEIZA

JOXEPA ALBIZU ▶ TALOGILEA

«Duela 15-20 urte hasi ginen Tolosako Inauterietara etortzen»

Txikitan, etxean ikasi zuen Joxepa Albizuk taloak egiten, eguneroko jaki bat baitzen beaienean. Orain Goierriko taloak izeneko postuan aritzen da segurarra beste hainbat lagunekin batera.

Noiztik etortzen zarete Tolosako Inauterietara?

Duela 15-20 urte hasi ginen Inauterietan etortzen, eta beste

egun berezi batzuetan ere etortzen gara: Babarrunaren festan...

Beste hainbat herritan ere Inauteriak izanda, zergatik aukeratzeko duzue Tolosa?

Alde batetik gertuago dagoelako, eta bestetik, Tolosako Inauteriak oso garrantzitsuak direlako.

Lanean aritzeaz gain, jaiaz

gozatzeko aukera izaten al duzue?

Ostegun arratsaldean etortzen gara, eta egun horietan bai. Baina gaurtik aurrera lan asko egoten da, eta hemendik ikusten dena.

Nolatan hasi zineten hemen?

Batere pentsatu gabe, Santa Luzia azoka batean hasi ginen. Orain gero eta gehiago gara. ◀



E. EZEIZA

AIXA
AHOLKULARITZA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1.esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

SEGUROS
BILBAO

Zumardi
aholkularitza integrala
inauteri zoriontsuak
opa dizkizugu

Laskurain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

"Xirimiri" Gora inauteriak!
Txokolategia

Erremerkari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23

ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR

PAGOLA
ERAKIVNTZAK, S.L.

Izaskun Bidea, 7 behea
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80

20400 TOLOSA (Gipuzkoa)



HAUR DANBORRADA ▶

Hogeita... hamaika danbor

Aiz-Orratz elkarteak 31. urtez antolatu du danborrada; Laskorain, Samaniego eta Hirukideko ikastetxeetako haurrek osatzen duten danborrada

NEREA URBIZU



Txantxoak. Triangulo plazan denek batera jo zuten. Laskoraingoak izan dira aurtengo txantxoak. ASIER IMAZ



Marinelak. Itsasoko uraren beharrik ez zuten izan marinel gaztetxoek, galtzadan aurkitu baitzuten oinak bustitzeko adina ur. N. U.



Konpartsa. Aurreko larunbatean moztorro irabazleak izan zirenak konpartsan atera ziren: Popeie marinelaren konpartsan. A. IMAZ

31. urtez, hamaika ume ikusi ahal izan ziren Tolosako kaleetan zehar. Danborrak lepotik edo gerritik zintzilik eta baketak eskuetan, hots zainduak egin zituzten haurrek. Eguraldiak ez zuen jendea desanimatu eta euritakoak eskuetan gurasoak, eta xirak soinean jantzita umeak, atera ziren desfilea egitera, San Frantzisko ibilbidea zeharkatuz, Triangulo plazara.

Aiz-Orratz elkarteak 31 urtez antolatu du egun hau Inauterietan, eta urtero bezala arrakasta izan du aurtenera ere Haur Danborradak, nahiz eta euripean izan. Akordeoi-jotzaileak falta ziren, baina marinelak, errementariak, kosakak eta txantxoak ibili ziren, Tolosako txokoetara doinuak hedatuz.

Ez da baina, danborren soinua bakarrik entzuten: ekialdetik etorritako kosak panderoek ere ez zuten atsedunik izan, dantzarekin batera astintzen baitzuten musika tresna, karroza eta marinelen artean, eta desfileari beste kolore bat gehituz.

Tolosak egun batez Donostia zirudien, bertako danborradako kantak ere jo baitzituzten ume eta gaztetxoek: aurreko asteetan egindako lana erakutsi zuten etxeko txikiak. Hiru ikastetxe aritzen dira jotzen egun honetan: Hirukidekoak, Laskorain ikastolakoak eta Samaniegoak, hain zuzen.

Karroza ere bai

Aurtenera, Samaniego ikastetxeak arrantzalez atera dira, sira gorrixka zeramatela. Hirukidekoak errementariak izan dira, euri jasaz babesteko xira urdina zeramatela, eta azkenik, txantxoak Laskoraingoak izan ziren, lastozko kapelarekin nahikoa zutela erakutsiz. Guztira, 450 haur izan ziren desfilean. Guztia, gainera, 6 eta 12 urte bitartekoak.

Desfilearen bukaeran traktore batek Popeie marinelaren karroza zeraman. Honen gainean, lehengo asteko larunbatean egindako lehiaketan moztorroen saria jaso zutenak zeuden. Hauek, bidean zehar hainbat goxoki banatu zituzten. Bat baino gehiago makurtu zen goxokiak jasotzeko, nahiz eta euririk egindako putzu inguruetan sartu.

Eta danborrada bukatuta jendea zerura begira geratu zen, helduen danborrada entzuteko aukera izango ote zen galdezka.

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbitzailea. Garbiketa jantokietarako sukaldea, eskolak. 943 44 48 66.

Gidaria. Gidaria behar da erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

Langilea. Elektrizitate enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu: obrak, industrietarako... Deitu: 943 80 00 00.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Gure webgunean aurtengo Tolosako Inauterietako irudiak ikus ditzakezu Irudietan leihatilari. Bestela ere, egunero bideo grabaketa bat ikusteko aukera izango duzu webguneko azalean. Sar zaitez: ea zeure burua horietako baten batean ikusten duzun!



Errementariak. Eurpean desfilatu zuten San Frantzisko ibilbidetik Triangulo plazaraino. Sardeskak eskuetan hartu beharrean, makilak hartu zituzten. N. URBIZU



Balkoia. Kultur Etxeko balkoian Haur Danborradako kantinerak eta zuzendariak elkartu ziren. Zuzendari gazteek azken danbor soinuak bertatik zuzendu zituzten, kantinerak erritmoa mantentzen zuten bitartean. N. URBIZU

OHARRA ▶

Tolosaldea Bus autobusek Inauterietan jarritako autobus zerbitzu bereziak Santa Klaratik aterako dira.

Café Iruña
Inauteritan ondo pasa!
Pintxoak eta plater konbinatuak
Gorriti plaza, z/g•Tolosa•Tel: 943 01 65 65

OLATZ
- Errota, 3 - Villabona
943 243 118
635 706 728
Olatzinmo@euskalnet.net
www.olatzinmo.com
Tolosa - Villabona - Zizurkil:
31.000.000 - 186.300 €-tik aurrera
etxebizitzak salgai.

ELA Ondo pasa Inauteririk!
EUSKAL SINDIKATUA

hitza Harpidedunen txokoa **PILOTA PARTIDUETARAKO SARRERAK**

OTSAILAK 18 • IGANDEA
17:00etan
AGIRRE - BEGINO // CHAFEE-NALDA III
OLAIZOLA II - OTXANDORENA / GONZALEZ - PASCUAL
ALBIZU - RAI // DEL REY - APEZTEGA

Aspek antolatuta igandean eta astelehenean Beotibarren jokariko diren pilota partiduetarako HITZAK zozkatutako bina sarreraren bi harpidedun irabazleak honako hauek dira:
▶ Igandeko partiduen irabazleak:
Karmele Begiristain Aranbarri
Karmen Inaite Arsuaga
▶ Asteleheneko partiduen irabazleak:
Milagros Urbieta Usandizaga
Jose Antonio Artola Agirrezabala

OTSAILAK 19 • ASTELEHENA
16:30etan
GALARZA V - ELKORO // BERSALUZE IX - GALARZA VI
MTZ. DE IRUJO - ZUBIETA // TITIN III - LASA III
BALEZTENA - URBERUAGA // APEZTEGA - ALIXIN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ardaitzaileen artean zozketak ostero

KIKATZA
PINTXOAK - BOKATAK ANOAK
PLATER KONBINATUAK
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

'ZURE UMEEN DENDA'
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak zakuak • maindireak • ohe estalkiak
HAURDUNENTZAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE ONDO PASA INAUTERIAK!
Txalo San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

ONDO PASA JAVIAK!
Tel.: 943 65 07 84
Nafarroa etorb. 17
TOLOSA

farmadenda@euskalnet.net
parafarmazia
Farmadenda
lurre auzoa, 7
20400 Tolosa
Tel.: 943 57 95 28

MATXINA
Etxekotresna elektrikoan konponketa
Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

PAPERGINTZA ▶

Oria da greba egin nahi ez duen bakarria

Eskualdeko paper fabrika guztietako langileek elkarretaratzea egin zuten



Oria paper fabrikaren aurrean egin zuten kontzentrazioan ertzainak ondoan izan zituzten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuek deituriko greban zazpi paper fabriketatik seik hartu dute parte. Zizurkilen dagoen Oria paper fabrikak ezezkoa esan du. «Oriak ez du sektorearen gehiengoa onartu», adierazi zuten Josu Olazabalek, papergintzako langileen artean adostuta dagoenaren arabera, Gipuzkoa mailako kontaketa burututa, eta langileen gehiengoak grebara jotzea erabaki-

tzen badu, enpresa guztiek hartu behar izaten dute parte.

Lantegiaren aurrean atzo lehen elkarretaratzea egin zuten 13:00etan. *Papergintza borrokan, hitzarmen duin baten alde* lelopean. Bertan, 40 bat lagun bildu ziren, Ertzaintza ondoan izanik. «Ez dugu ulertzen zergatik enpresak deitu dituen: zerbaitek hautsiko genuenaren beldur izango ziren», argitu zuten Josu Olazabal ELAko kideak.

Tolosaldean, Berastegiko

Munskjö, Amezketako Aralar, Berrobi aldeko Sarrio eta Zizurkilgo Orian egin dituzte bozketak eta grebarako deialdiari baiezkua erantzun diote lehenengo hiruek. Atzo, 06:00ak aldera greba komitea osatzen duten —deialdi hau legala baita— 12 bat lagunetik CCOOeko, LABeko eta ELAko kide bana Oria paper fabrikari sartu nahi izan zuten «baime-narekin, langileei informazioa

zuzenean emateko asmoarekin, baina atariko langileak sartzea ukatu egin zigun».

Mobilizazioekin aurrera

Hurrengo asteburuan ere, bai larunbatean eta baita igandean ere kontzentrazioak egingo dituzte Tolosako Triangulo plazan, 12:30ean. Mobilizazio hauek joan den urteko urriaren 24an sindikatuek eta ADEGik egindako bilera egin ondoren hasi ziren: honetan, alderdi bakoitzak bere proposamena aurkeztu zuen. Egun hartako bilkurako aktan biltzen denaren arabera, Adegik 2007 eta 2008rako soldatutak KPIaren %127a proposa-

tzen zuten. Baina, guztian kontraesana dagoela adierazi dute sindikatuetakook, bi informazio ezberdin eman baitituzte. Sindikatuko enpresaren ustetan, «informazio okerra» ari da zabaltzen Adegik, «ikusitako langileak mobilizatzen hasi direla».

Prentsa oharrez informazioa zabaldu zuten Adegik, baina «Adegik gezurretan ari da, langileei sinestarazi nahi baitie %137a eskaintzen dutela, baina ez da horrela, ofizialki prentsa oharrek ez baitute baliorik, eta ez da logikoa gauza hauek prentsa bidez igortzea». Honen harira, sindikatuetakook gogoratu dute, egindako bileran igoera %127koa izango zela esan zutelako, eta ez %137koa.

aldama_tapia
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea, 7 • 20400_TOLOSA, Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

KLISK
argazkilaritza

943 69 80 39
San Frantzisko, 6
Tolosa

Tolosaldea BUS S.L.
Ondo pasa Inauteririk!

Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak

Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia EtoB,9 • TOLOSA

in→ gremioen koordinazioa
Inauteririk ondo pasa!

argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arotzak

eskaialista & dekoratzaileak
zoruak & leihoak
altzariak & sukaldeak

Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

AITZOL
UDAL EUSKALTEGIA

TOLOSAKO UDALA
EUSKARA BATZORDEA

Laskorain ikastola
40 urteurrena

Kazkabarra taldea 25 urtez euskarari osten

INAUTERIETAN EUSKARAZ BIZI

1924
ECEIZA
T O L O S A

TEILAK ETA ZIGARROT XOAK

PABLO GOROSABEL, 34 • TEL.: 943 655161 • SAN FRANTZISKO, 8 • TEL.: 943 651916 • TOLOSA




Inauteriak ondo pasa!!

ISASTEGI
sagardotegia

LARUNBATA
EGUERTITAN IREKITA

Aldaba-Txiki auzoa - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 29 64
www.isastisagardotegia.com - tolare@isastisagardotegia.com

Sastreria Aranguren

Ondo pasa Inauteriak!

Korreo, 4 • Tel.: 943 670525
Korreo, 1 • Tel.: 943 673311
TOLOSA

Gizon eta emakume



Langile Abertzaleen Batzordeak

Euskal Herrian bizi eta lan bertan erabaki

inauteriak ondo pasa!

Gorosabel 29,1. - Tel.: 943 67 00 26 - 20.400 TOLOSA



Dietetika eta Belardenda

ZAINBERRI

Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

TOLOSAGASA

Tolosako energia. Zurea
Energía de Tolosa. Tu energía

Arostegieta, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

FESTAK ONDO PASA!

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com



*"Jeiki guztiok...
...goazen festara
danok goizetik!"*

kutxa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net



GIZARTEA ▶

Batzuk festan, besteak... lanean!

Urteroko gauza da, Inauteriak goza ditzagun beste batzuk lanean aritu behar izaten dute; parrandan ibili eta lan egitea ez omen dira guztiz bateraezinak



Larrialdi guztietarako prest izango dira Gurutze Gorriak; gehienak eskualdekoak badira ere lanean baxandakutuko dira Inauterietan. I.ASENSIO



Trafikoa zuzendu, señalizazioa jarri, kaleak moztu, autoak aparkalekuetara zuzendu... lan ezberdinak egin beharko dituzte udaltzainek. HITZA

Sam Kartazalak
Poltsak

Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 40 00 • Faxe. 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Inst. Elektriakoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..

lurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb. 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

IÑIGO ASENSIO

Lanean aritzea egokitu zaie. Tolosarrak asko, inauterizaleak gehienak eta egun hauetan herriarrok zerbitzura ariko direnak. Udaltzainak, Gurutze Gorrikoak, Herri Babesakoak, DYAKoak... Ziur zerrenda ikaragarri luzatzeko beste asko ere izango direla baina batzuen lanari buruz hitz egingo dugu. Inauterien gorabeherez mintzatu dira bai Gurutze Gorria eta baita Tolosako Udaltzaingo ere. Beraiek lana gogoz

egin beharko dute egun hauetan herritarrok festaz goza dezagun.

Gurutze Gorriko Iñigo Zabaletak urte batzuk daramatza Inauterietan jendearen segurtasuna ziurtatzeko lanean. Egunduek, profesionala eta bolondresena. Noski gehienak eskualdekoak izanik ez da erraza goardia guztiak betetzeko autzura izatea. «Gurekin lan egiten duen jendea gaztea da orokorrean, 18 eta 35 urte bitarte-

koa, eta noski, guztioi gustatzen zaie Inauterietaz gozatzea. Hala ere, bikain erantzuten dute, badakite lana banatu behar dela eta zailtasun gehiegi gabe betetzen ditugu goardia». Hala ere, goardia egunak, aurreko eguneko parranda ere baldintzatzen du. «Garbi daukagu asteartean lan egin behar badugu ezin dugula astehenean edonolako parranda bota; arduratsuak gara oso zentzu horretan». Dena den Zabaletaren ardura ez da hor lan egunetara mugatzen. Iker Vacasek azaltzen duen bezala, «Iñigok egunero 24 orduetan dauka mugikorra gainean, nahiz eta goardia betetzen beste batzuk izan, eta behin baino gehiago gertatu da festaren erdian telefonoak jotzea». Inauteri hauetan, Udaltzainekin duten hitzarmena dela eta aurtien DYARI egokitu zaio zezenetan eta soka-muturrean aritzea, eta Gurutze Gorrikoak larrialdietarako prest izango dira beste urte batez. «Inauterietan jendetza izateak lana areagotzen du noski, baina ez da ohiko istripu larrikeria gertatzea. Orokorrean ebaki txikiak, erorikoak eta alkoholak sorturiko sustoren bat izaten dira betebeharrak lanak», dio Xanti Aizpuruak. Hala ere, Gurutze Gorriko kideek gogorazazi nahi dute, askotan izaten diren zauri txikiak Tolosako Anbulategian sendatu behar direla, eta ez besterik gabe anbulantzia bat eskatu. «Guri ez digu axola irten eta zauri txikiak sendatzea, baina askotan lanaz gainezka ibiltzen gara horrelakoengatik», gaineratu du Zabaletak.

Hauekin batera, Tolosako Udaltzaingoak ere izango du nahiko lan egunotan. Trafikorako 10 laguntzaile kontratatu dituzte, eta gau eta egun izango dira errefortzuak, jaiak istilu eta arazorik gabe eman daitezkeen. Guztira 16 udaltzainek banatuko dute lan hori, aipaturiko 10 laguntzaileez gain. Arazo gehienak trafiko eta señalizazioarekin izango dituztela aipatu dute arduradunek, eta urtero bezala izango dela astelehen goizean mozkortuta ibiliko denik.

Soinuarekin bueltaka

Egun hauetan musikaren eta parrandak dabiltzan on aurrean bizilagunak nahikoa permissiboak izaten direla gaineratu dute, eta ez direla kexa gehiegi izaten. Badirudi Tolosan ez du gela isilasunezko Inauteririk egin beharko, ez oraindik gutxienez!



Tabernariak jaiaren zerbitzura

Asteak daramatzate euren biltokiak hornitu eta langileak lortu nahian; egun gogorak izango dira tabernarientzat ere

I.ASENSIO

Festak osagai asko behar ditu egun hauetan, inork ez du zalantzarik, baina garbi dago tabernak beharrezkoak, edo laguntzakoak gutxienez, izango direla egun hauek jai giroan igarotzeko. Egunduek Tolosara iritsiko den jendetza jasan behar dute, besteak festan dauden bitartean lan egitea egokitu zaie, alkoholak eragindako egoeren aurrean aurpegi ona jarri eta goizeko ordu txikitetan ixteko irrikitan igaroko dituzte Inauteriak. Neurri batean bai, baina beraiek ere gozatzeko euren modura Inauteriak. Ordizia Tabernako Gorka Abadgoitia eta K-2 Tabernako Erika Morales beraien esperientziari buruz mintzatu dira, eta badirudi lan eginda ere tartexorik izango dela festan murgiltzeko.

Gorka Abadgoitiak 20 urte daramatza Inauterietan lan egiten, baina ala eta guztiz ere Ostegun Gizona iritsi bitarte urduri ibili dela onartzen du. «Aurreko egunetan guztia prestatzen ibili behar izaten dugu, edaria guztia erosi, egun gogorrenetarako langileak lortu, plangintzarekin asmatzen saiatu... Ondoren, behin festa martxan jartzen dela, guztia lasaiago hartzen gugu. Lan asko egin behar izaten dugu, baina martxa hartu eta aurrera egiten da». Festarako astirik izaten omen da, baina Abadgoitiak atsedean hartzea nahiago izaten du. «Gazteagotan, lana eta parranda arazorik gabe egiten nuen, baina orain nahia- go izaten dut atsedean hartu.

Hala ere, gure arteko giroa oso ona izaten da lanean, eta bezeroekin-eta festaz gozaten dugu guk ere, musika jarri eta tabernako giroaz goza daiteke nahiz eta lanean aritu». Ordizia Tabernako Gorka Abadgoitiak onartzen du hala ere, astearte gauan parrandan ibiltzeko parada izango duela. «Urtero bezala, Inauterietan lan egin eta asteartera arte itxaron behar-ko dugu guk ere festa hau pixka bat ospatzeko».

K-2 Tabernako Erika Moralesek 26 urte ditu, baina gazte izanda ere bere zazpigarren Inauteriak izango dira lanean. Berak nahiago izaten du gauz lan egin eta eguna kalera irte- teko aprobetxatu. «Gauz lan egitea nahiago izaten dut arrazoi ezberdinengatik. Hasteko egunez lan egingo banu gau osoa tabernaz taberna pasako nukelako eta ondoren lanera... Gainera Inauteriak egunez oso gustuko ditut, trago batzuk hartu, karrozak ikusi eta abar. Horrez gain gauz lanean izaten den giroa asko atsegin dut. Inguruan dituzunekin gustura bazabiltza bikain pasa dezazu». Inauterietan jende mordo- doa pasako da tabernatik bai- na Erika Morales pazientzi- az jokatzeko ohituta dago. «Urte- ro izaten da mozkorrik, baina badakigu Inauteriak direla eta pazientzi- az hartzea da onena. Niri ez zaizkit bereziki egun pi- suak iruditzen». Eguberriak pasa bezain pronto hasi ziren Inauteriak prestatzen, biltoki- kiak hornitu eta egun haueta- rako langileak bilatzen. «Hu- rrengo urtean askoz lehenago iritsiko dira egun hauek horre- gatik Eguberrien aurretik hasi



Taberna apaindu eta txilaba soinean jantzita jardungo dute lanean Ordizia Tabenakoek. I.ASENSIO

beharko dugu bai Eguberrieta- rako eta bai Inauterietarako prestatzen, bestela nekez emango digu denbora».

Asteartita noiz iritsiko zain

Badirudi tabernari gehienak asteartearen zain izango direla egun hauetan. Aste osoa lane- an igarri ondoren, berain txan- da iritsiko da orduan. Erika Moralesek aipatu duenez, «Aste- artea zerbitzarien eguna da, eta egun ikaragarria izaten da. Herriko jendea geratzen da, eta tabernetan aritzen garenak gutxinaka-gutxinaka itxi eta kalera iriteten joaten gara, az- ken tabernak ixten duen arte. Beti dago non parranda egin eta azkenean, urtero bezala, aurtien ere asteazken goizean lanera doazenekin egingo dugu topo. Azken eguna bada ere, hainbeste egun lanean izan ondoren parrandarako gogo biziz izango gara gu ere». Ziur astearte goizera arte kale- an ibiliko diren bakarrak ez di- rela izango.



Garagardoa barra-barra zerbitu beharko dute K-2n egunotan. I.ASENSIO

hilberria ▶

Juan Bautista Agirre Irazoki

Atzo hil zen Beasainen Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Haren animaren alde otoi- z bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela gaur Beasai- nen, arratsaldeko seiak eta erdietan, Loinaztar Martin parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

BEASAIN, 2007ko otsailaren 18a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

urteurrena ▶


IX. URTEURRENA

Etxahun Gorrotxategi Zuaitz

Zure nahi preziatua oraindik ez degu lortu Euskal Presoak herrian ez baititugu elkartu. Espainiar gobernuak denak ditu barreiatu baina egingo ditugu gudariak kaleratu eta zuk nahi zenuena Euskal Herria askatu.

Bihotzean zaitugu!
Sendia eta lagunak

GABIRIA, 2007ko otsailaren 18a



urteurrena ▶

I. URTEURRENA

Jexus Sarasola Arregi
2006ko otsailaren 18an hil zen.

Oroitze-ko lore, laztan bihotze-ko, itzali den gure izarrarentzako.

Ana, Maddalen, Elorri eta Angeles.

ORDIZIA, 2007ko otsailaren 18a





GIZARTEA ▶

Turistaz 'mozorrotuta'

Inauterietan herrian gelditzen ez direnek eguzkia eta elurra aukeratzeko dituzte egun hauek igarotzeko

IMANOL GARCIA

Tolosaldean inauterizale ugari daudela egi borobila da eta Tolosako Inauteriek duten ospea ere hortik dator: jende ugari mozorrotzen da eta ez bakarrik mozorrotu, mozorroa bizitzen du ere, antzerki bihurtzen du. Bada ere inauterizalea ez den jendea eta egun hauetan herritik alde egitea erabakitzen duena. Benetako turistaz *mozorrotzen* dira eta bi norabide hartzen dituzte: eguzki bila edo eskiatzera.

«Egun hauetan jendea gehiago mugitzen da. Urtetik urtera nabaritzen da hori», dio Xabier Etxarri Tolosako Eroski Bidaia bidaia-agentziako arduradunak. Bidaia gehienak eguzkiaren bila joaten dira eta Kanaria uharteak dira aukeratuak. Tolosako Viajes Iberia bidaia-agentziako Ilenia Cotok hala zehazten du: «Astebete inguruko bidaia egiten dituzte». Irma Goikoetxea Villabonako Bidaie agentziakoak ere Balearrak aukeratu artean dau dela azaltzen du.

Beste protagonistak elurra da. Aurtan, baina, ez da egon hain-

besteko eskaera. Etxarri dienez, «neguan zehar elur gutxi egin du eta beraz ez da eskaera handirik izan. Beste urtetan jendeak aprobetxatu egiten du elurretara joateko». Goikoetxeak ere elur faltagatik horrelako bidaia gutxiagotu egin direla nabarmentzen du.

Adin guztietako turistak izaten dira Inauterietatik alde egiten dutenak. Hala ere, Goikoetxeak gazte jendea joaten dela nabarmentzen du, «20-40 urte bitartekoak». Eskoletako oporrak aprobetxatuz, gurasoek ere oporrak hartu eta familian joaten dira asko. Aurtan jende helduagoa hurbildu dela agintzari dio Etxarri: «Gazte jendea normalean eskiatzera joaten da eta, esan bezala, ez dago elur askorik».

Bidaia zutenen artean, ohikoa da ere urtero jende berdina topatzea. «Batzuk badira normalean joan-etorri bat egiten dutela neguan eta Inauterietatik aprobetxatzen dituzte horretarako. Horiek Kanariar uharteetara joaten dira», azaltzen du Etxarri. Cotok ere baieztatzen du hori: «Badago beti urtero errepikatzen due-



Kanariar uharteetara joan ohi da bidaia ugari Inauterietan. HITZA

na». Bestalde, bidaia-agentzietara joaten direnak orokorrean emakumeak dira. «Gizonezkoak etortzen direnean bikotearekin izan ohi da», zehazten du Cotok.

Eskaintzarik ez

Agentzietan ez da eskaintza berezirik egiten garai hauetarako. Inauterietako asteburuan mugimendua handiagoa bada

ere, hurrengo asteburuaren berdina ordaintzen da. Salbuespena izatekotan, txarrerako izaten da gainera. «Kanaria uharteetan Inauterietan ospatzen dituzte eta horregatik prezioak igo egiten dira. Han goienboraldia da», dio Etxarri.

Eskaintzarik nahi izanez gero azken mementuan agentzietara joatea da aukeretakoa. Hala ere, hori ez da ohikoa. «Orokorrean denborarekin

etortzen dira bidaia erreserbatzera», azaltzen du Cotok.

Ez dago egun zehatzik oporetan irteerako. Batzuk ostegunetik abiatzen dira eta badira larunbatean joaten direnak ere. Hori bai, Ostiral Mehean ateratzen direnei, aurreko egunean afaririk izanez gero, goiz oheratzeko abisatzen diete bidaia-agentzietatik. Hegazkinera berandu iritsiz gero ezin baita erreklamaziorik egin.

Orain 43 urtetatik eski irteerak antolatzen Formigalera

Inauterietan datak urtetik urtera aldatzen badira ere, beti neguan izaten dira. Aisialdiari dagokionez, negua eskiaekin lotuta dago. Eskia gustuko duten zenbaitzuek, beraz, Inauterietan asteburua erabili ohi dute eskiguneetara joateko.

Orain 43 urte hasi zen Pepita Esnaola tolosarra autobus antolatzen eskiatzera joateko. «Beti joaten gara Formigalera», dio Esnaolak. Aurtan 26 laguneko taldea joango da. Beste urtetan autobus guztia betetzen zuten, baina urteak pasa ahala gauzak aldatzen joan dira. «Lehen ez ziren hainbeste joaten elurretara. Orain gurasoak hurrekin joaten dira. Askok Jacan etxebizitza dute eta beste modu batera antolatzen dira. Bizitzeko modua eta oporrak egiteko asko aldatu da urte hauetan». Agian zerkusua ere izango du aurtengoa neguan ez duela elur asko bota eta eskiatzeko egoera ez dela aproposena ere.

Gaztetatik hainbat egitas-motan aritzen zen Esnaola. «Ni beti aritu naiz besteei laguntzen, herrirako eta gauzak egiten. Gaztea nintzela kanpanlekuetara joaten ginen eta horrela sortu zen eski irteera antolatzearena. Tolosan beti ezagutu nau jendeak eta horrelako gauzak egitea ez dit esfortzurik suposatzen». Dirudienez ahoz aho jakin izan dute interesatuek. «Behin ere ez dut iragarkirik jarri», dio Esnaolak.

Aurtan joan diren 26 laguneko taldeko gehienak 12 eta 14 urte bitartekoak dira. «Nagusagoek Inauterietan probatzen hasten dira eta gelditu egiten dira. Beste urte batzuetan ere gurasoak etortzen dira». Ostiralean atera ziren eta asteartean itzuliko dira Tolosara.

Bidaia zutenen artean, ez zutenen artean ere aldatzen dira urtearen poderioz. «Asko aldatu da Formigal. Lehenengo aldiz bertara joan nintzenez tele-



Lagun batzuk eski ikastaro bat egiten. HITZA

aulki bakarra zegoen. Ez zegoen Hotel Formigal ezta egungo turismogune guztia ere. Formigal hazten ikusi dut nik, etxetzex».

Sallent de Gallegon hartzen du ostatu taldeak. Han afaldu, lo egin eta gosaldu egiten dute eta gero pistetan bazkaltzen dute. Hangoaren berri ez dutenez, Tolosa eta Uzturre

erabiltzen ditu Esnaolak adibide bezala. «Sallent de Gallego Tolosa izango litzateke. Pistak Uzturren egongo lirateke eta Tolosatik Izaskunera autobusean joango ginatke eta handik teleaulkia hartu Uzturrera joateko».

43 urte hauetan 6-7 urtetan ez zuen irteera antolatu. «Kontrako propaganda izan ge-

nuen. Elitekoa zela eta esaten zuten. Urte horietan nire gurasoak Vila Joiosa joaten ziren negua pasatzera eta beraien gana joaten nintzen: elurretara joan beharrean eguzki bila joaten nintzen».

Baina Esnaola berriro ere hasi zen antolatzen eski irteera. «Gurasoek esan zidaten ea zergatik ez nuen berriro antolatzen eta horrela jarraitu nuen. Gustura egiten dudana da, menderatzen dudana eta ez dit nekerik suposatzen. Batzuetan zailagoa da bidaia aurrera ateratzea. Baina arazoak konponbideak jarri eta aurrera».

Inauterietan ez zaizkio asko gustatzen Esnaolari. «Gaztea nintzenez ere ez zitzaizkidan gustatzen. Danborrada eta diana gusatzeko zaizkit eta patinaz jolastu ere bai. Bestela molestatu egiten dit, ganberoek batez ere. Nik esaten dudana zera da: ez bazara Inauterietan murgiltzen, onena da Tolosatik ateratzea». ◀



UDABERRIEN 50. URTEMUGA ▶



Udaberri dantzari taldearen (taldekoak ez ziren lagun batzuk ere badira tartean) lehen konpartsa, 1967an, San Cosme y San Damian klinikan. Eskuinetik hasita: Ináki Garces, Jokin Amonarriz, Maria Jesus Legiñena, Ander Letamendia, Javier Azpeitia, Marcos Perez (alkatea), Maite Vicente, Juli Delgado, Maria Jesus Olarra (alkatesa), Maria Angeles Sampedro, Maria Isabel Vitoria, Jesus Mari Jauregi, Julian Aizpuru (mikelelea), Juan eta Jose Mari Agirre (haur bixikiak), Javier Orus, Javier Gastesi, Fernando Arnaiz, Maribi Madariaga, Loli del Pozo, Mila Roncal, Itziar Iraeta, Ináxio Agirre, Mari Juani Garces, Jose Ramon Garikano, Manel Irastorza, Antton Vitoria, Jose Antonio Gorostidi. Tartean identifikatu gabeko lagun bat gelditu da. HITZA



Harmarria. HITZA

DANTZAK

Kasu askotan, euskal dantzak Inauterietan txertatu edo Nafarroako Inauteriak berreskuratu ditu taldeak

PARTAIDETZA

Lehen urteetan oso talde jendetsuak atera ziren; azkenaldian lagun talde txikiagoak ateratzen dira

bere neskaren bila etxera joan omen zen, orduan biltokia zuten Txapel fabrian elkartu, hainbat aldiz aureskua dantzatu, Izaskungo aldaparen hasieran zegoen Rem tabernan garbantzua bazkaldu, San Cosme eta San Damian klinikara bisita egin...

Lehen saioak oso jendetsuak izan ziren: ijitoak 1969an, txanxtoak 1970ean, Vienako haur kantariak 1971ean, Santa Agedarako autobusa 1973ean...

Nafarroako inauteriak

Hurrengo urteetan talde txikiagoetan atera ziren taldekideak eta 90. hamarkadan berriro atera ziren talde handian Oargiko lagunekin batera, Nafarroako zenbait inauteri berreskuratu gainera: 1990ean Altsasuko edo Momotxorroak, 1991n Lizarrakoa, 1992an Tuterakoa edo Zipoteroak, 1993an Ollite-Erriberrikoa eta 1995ean Unanuakoa. Handik gaur egun arte talde txikiagoetan parte hartzen jarraitzen dute taldekideek.

Baina konpartsez gain, Udaberri beste ekarpen batzuk ere egin dizkie Tolosako jaietara. Zaldunita Bezpera indartzeko asmoz, kalejira dantzatua egin zuten 1997an eta 1998an, Euskal Herriko hainbat dantza eskainiz, eta 2001etik 2004 arte Zaltzaundiren kabalkada egin zuten Zaldunita Bezperako danborradan.

Euskal dantzak Inauterietan

Tolosako jaietan parte-hartze zuzena izan du 50 urte bete dituen Udaberri dantzari taldeak; konpartsez gain, Zaldunita Bezpera berri dute

JOXEMI SAIZAR

Historia pixka bat

1957an sortu zuten, 50 urte bete ditu Tolosako Udaberri Dantzari Taldeak. Xalbador Garmendia eta Felix Galdona apaiz sakramentinoak izan ziren sortzaileak, bere parrokiaren —Korpus Kristi— inguruko gaztetxoak —mutilak bakarrik— bilduz. Irakasleak eta musikariak bilatu, dantzak irakatsi eta lehen emanaldi xumeak eskaintzen hasi ziren inguruko herrietako jaietan eta ekitaldietan. Harrez gero makina bat buelta eman ditu taldeak eta jende eta belaunaldi desberdinak izan dira Udaberrin parteide.

Inauteriekin ere harreman estua izan du taldeak, karroza eta konpartsa ugari kaleratuz kasu gehienetan musikariet laguntzarekin —horietako asko euskal dantzekin erlazionatuta— eta azkenaldian Zaldunita Bezperako arratsaldean, euskal inauterien desfilea antolatuz eta danborradaren berrikuntza bultzatuz Galtzaundiren irudiaren inguruan.

Taldea sortu eta berehala mistoa bilakatu zen Udaberri, hazitzen joan zen, beste euskal lurraldeetako dantza gehiago ikasten... Lehen emanaldi berezia *Euskal Show* izenekoa izan zen 1969an, Oiertzungo Lartaun abesbatzarekin batera. Hurrengo belaunaldian aipatzeak diren gertaera nagusiak 1970ean telebistarako programa grabatzea, 1971an Lizarran dantzatzetik zetozela taldekideek izan zuten autobus istripua eta Holandako (1974) badaia dira, Euskal Herriatik atzerrira egindako lehen irteera.

Gero taldeak urte batzuetako hutsunea (1976-78) izan zuen eta 1979an berrindartu zen Bordondantza berritua aurkeztuz. Hirugarren belaunaldi honek atzerrira badaia dezente egin zituen: Britainia (1981 eta 1982), Ekialdeko Alemania (1984), Espainia (1985), Katalunia (1986), Irlanda (1987), Austria-Praga (1988). 25. urtemugako argitalpena eta ekitaldiak burutu ziren. Musikariet txaranga ere asko indartu zen garai honetan.



Aerobik-en ordeko euskal bik atera zuten Udaberrikoek 1998an. HITZA

Hurrengo belaunaldiak ere hainbat bidai egin zituen: Akitania eta Espainia (1990), Hungaria (1992), Suitza (1992), Italia (1994), Belgika (1995), Normandia (1996), Akitania (1998) eta Portugal eta Galiza (2001). Bordondantzari buruzko bideoa atera zuten 1990ean eta Xilurikan ikuskizun berezia aurkeztu zuten 1992an eta 1993an. Taldearen 40. urtemuga ere era berezian ospatu zuten. Azken urte hauetan taldean jende aldaketa handia izan da, baina bere entsaio eta emanaldiek jarraitzen du.

Inauterietan ere bai

Inauterietan ere presentzia handia izan duela esan dugu. Tolosako beste elkarte gehienak bezala, karrozak eta konpartsak ateraz izan da parte-hartze hori kasu gehienetan.

Taldearen lehen parte-hartzea Inauterietan duela 40 urtekoa da, justu 1967an atera ziren taldekide batzuk taldekoak ez ziren beste lagun batzuekin. Udaletxea atera zuten: alkatea (Marcos Perez eta Maria Jesus Olarra), zinegotziak, mazerokak, alguazililoak... Mutil bakoitza



ZIRI-ZIRI ▶ JOXEMI SAIZAR

Zein da festaren kolorea?

Zein da Inauteriaren kolorea? Zalantza esistentzial hori planteatu zuen herenegun lagun batek koadrilan. Izan ere, gure festaren musika, giroa, otorduak, usainak... askotan izaten dira mintzagai, baina kolorea? Badirudi telefonia konpainiek pintorearen paleta osoa lapurtu digutela azkenaldian.

Patziuko Perurena idazle leizarraren *Koloreak euskal usarioan* liburu ederraren parera iristeko asmorik gabe, axaleko azterketa txiki bat egitera ausartuko gara.

Atzoko goizaren kolorea adibidez, horia zen. Eguzki argiaren kolorea, zoriontasunaren eta berotasunaren kolorea. Amarotzeko txaranga-kolorea ere bazen. Aterako al da Astelenitan? Baina arratsaldea grisa bilakatu zen, euritsu eta triste, haur danborrarien eta bere gurasoen zoritxarrerako.

Ostegun Gizona laranjaz margotuta jaiki zen, gaztetan eta festaren ikurra nerabeen buzoetan ikus zitekeen. Gaua arrosaz margo genezakeen, Aurrerako danborradako txerrikoena edo afaltzeko labean sartu genuen txerrikumearena, ingenuitatearena, maitasunarena...

Gaur musika bandaren frak-aren beltzarekin esnatuko gara, boterea, beldurra, misterioa eta heriotzaren margoa. Eta gero milaka kolore elkartuko dira: zerua, ura eta itsasoa islatzen duen urdin hotza. Tolosaren eta hainbat txaranga-kolorearen ikurra; itxaropenaren eta naturaren kolore berdea; sua, odola, arriskua eta erotismoaren gorria; garbitasunaren eta perfekzioaren zuria; ortzadarraren bilduma osoa... Kolore biziz blaituko da festa.

Eta Hausterre Eguna more esnatuko da, Garizumaren kolorea.

Ea kolore guzti horiek eta horien nahasketa guztiak harrapatzeko eta gozatzeko gai garen egun hauetan!

GORA ETA BEHERA ▶ ERREDAKZIOA

Ostiral Meheko danborrada

2000. urtean egin zuten azkeneko Ostiral Meheko danborrada. Eta zazpi urte beranduago berreskuratu egin dute. Mertxe Iturralde zuzendariaren gidaritzapean 25 emakume inguruk Tolosako kaleak danbor hotsez alaitu zituzten herenegun gauean. Giro alai sortu zuten, ezbairik gabe, tolosar hauek. Azken piezak Berdura plazan jo zituzten, Alde Zaharreko kaleak zeharkatu ostean. Eskertzekoa da euren saiakera Inauterietako usadioak berreskuratzeko. Hori dela eta, gure Gora gaurkoan eurentzat da, Inauterien alde eginiko lanagatik eta esfortzuagatik. I. GARCIA



Euria ere Inauterietan agertu behar...

Eguzkitsu esnatu zen Tolosa atzo. Badirudi, ordea, festarako gogo gutxi zuela eguzkiak arratsalde partean. Agian bezperako ajea errekupeatzeko beharra ere izango zuen... Bera joan eta euria heldu zen, eta gogoz gainera. Umeen danborrada erabat busti zuen ibilbide guztian zehar gogor bota baitzuen. Ai, eguzki, larunbata eta jada ajearekin? Espero dezagun atsedendialdiaren ondoren berriro ere bueltan izatea. n. u.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Garazi. Bere 5 urtebetetzean zorionak atona eta amonaren partetik. Egun ona pasa!



ZORIONAK
Joxe Manuel (Lizartza). Zorionak ebeko guztien eta batez ere Eñauten partetik.



ZORIONAK
Jon Dorronsoro Eizmendi. Bost urte. Zorionak eta bost muxu ebekoen partetik.

ZABALA
KAFETAK
ONDO PASA INAUTERIETAN!

Nafarroa etorbidea, 2 TOLOSA
Nagusi enparantza, 2 ORDIZIA

Tlf.: 943 65 47 95
Tlf.: 943 88 29 88